

214. zk.

Bigarren aroa

Urriak 1
2013

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajeak

Irungo Argazki Elkartea



Kirolak

Erroibide

Saskibaloia Kluba



Bizikidetza Protokoloa

Gazte lokalen eta auzokoen arteko bizikidetza hobetzea xede

- 3 ACUBI, Bidasoako Kontsumitzaileen Elkartea
- 6 Jose Monje Irungo artxibozainak erretiroa hartu du
- 9 Txingudi Korrika, urriaren 5ean
- 10 Haurren Leihoa. Toki Alai LH 5
- 11 Gurasoentzat
- 12 Gazteen lanak. Hirubide BHI
- 13 Gaztea. Irun Sasoi programa

www.irunero.com
Sar
zaitez
web orrian eta
Facebooken



SANTYMAR SL
Bakailaoa betiko zapoareekin!!

ES 12.06752155 CE

Egoltza nagusia:
Bidaurre-Ureder
industrialdea
Ventas, 45 - D eraikina,
A-2 nabea. IRUN

Tel: 943 820391
Tel. eta telekopia: 943 820680

bacalao@santymar.net
comercial@santymar.net
www.santymar.net



Yurre Ugarte

Gizon beltz-beltz bat. Mendebaldeko gizaki zurion ikuspuntu topiko arinak esango luke "masai" tankerakoa. Bi metroko garaierari eusten diote mokasin motako zapata zuri-zuriek; soin sendo eta gihartsua praka bakerok eta elastiko argi batek ahal moduan estaltzen dute. Urre koloreko ordulari distiratsua urrea (gutxienez) merezi duen eskuan. Irribarre beteko ahoan, hortzak zapatak baino zuriagoak. Gizonaren ondoan emakume zahar bat, larruazala oliba marroien kolorekoa daukana; ilea, eskasa eta luzea, motots batean jasota. Familiako beste bi kide zaharrez inguratuta dago; ohiko ikuspuntu arinari jarraiki hiruei "ijittoa" esaten diegu. Alboan, eskubitara, badago emakume gaztea, burua zapi beltzaz estalia duena, soina ere zapi zabal eta handi bat dirudien soinekoaren baitan gordea; kotxetxoan darman haur jaioberriari baizik ez dio begiratzen. Hurrengoa, berrogeita piko urteko "gizona" da. Esan nahi baita, mendebaldeko gizon zuria, kallean zoazela atentzioa emango ez dizun horietakoa. Horrelako beste hiru gizaki sartu dira bat-batean, bakoitza

LAN...BIDEAN...

bere kabuz. Bat "Diariovasco" irakurtzen. Bestea "Gara" irakurtzen. Ez daukate non eseri, ez baitago eserleku liberrik. Kanpoan, badaude jada lauzpabost emakume, guztiak arraza zuri-koak eta "normal" tipologiakoak, hauek ere zain. A, eta badago, baita, hego hemisferioko indigena tankerako emakume bat. Non gaude? Londreseko metroan? Madrileko Gran Viako bar batean?... Jada hirurogei mila biztanle dituen Irunek duen Lanbideko bulego bakarrean, alegia, laguntza sozialak bideratzen dituen bulego bakarrean. Jakin nahiko nuke eserlekurik ere ez dutenen artean zenbatek eman dieten botoa gure gaurko agintariei; zenbatek eskumen borroketan murgildurik, hurrengo hilabeteetarako falta diren larrialdi sozialen laguntzetarako dirua ez jartzea erabaki duten horiei. Politikarientzat, horrelako bulegoetara astero-astero bisita bat egiteak gomendagarria ez ezik derrigorrezkoa behar luke. Agian utziko liokete dirua itxurakerietan xahutzeari eta hasiko lirake behar den tokietan eta behar dutenentzat ipintzen. Eta beste edonorentzat, halabeharrez egin behar ez duten horientzat (zorionekoak) ere bisita gomendagarria da. Mendebaldeko gizaki orain arte fortunatu zurion ikuspuntu topikoa gaindi-tzeko sikiera.

Larreandi atzo



Larreandi gaur



Larreandiko argazki hauetan, ezkerreko aldean, Txikillo baserria ageri da, gaur egun etxe bihurtua, sororik eta baratzerik gabe. Bere aldamenean, Larraundi baserriranzko aldean egiten dute muga Olaberria eta Lapitze auzoek. Muga Txunbillerrekak markatzen du, Txikilloren ondo-ondoan. 1980ko hamarkadan estali zuten Olaketa (Olazueta) aldetik Olaberriko errekarara doan erreka. Larraundi baserriak Prudencia Arbide kalea

amaitzen den bidegurutzean dauka sarrera. Sortetxe hau 1625eko lan batean aipatzen da. Baserriak izena eman zion 1950eko bukaeran eta 60koen hasieran familia immigrante askori aterpe emateko egin zuten etxe-multzo berriari

Argazkia: Emilio Navasen *Irun en el siglo XX* bildumakoa. Informazioa: Irun-Urantzu, Hondarribia, Hendaiia &... Hitzak Foroan argitaratutakoa eta Jose Monjeren *Irungo Kaleen Izenak* liburutik hartutakoa.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez
 Lekuona

Euskara zuzentzailea:
 Xabier Kerexeta

Publizitate kudeatzaileak:
 Sonia Garcia Olazabal,
 Lara Cañizo

lara@irunero.com,
sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
 Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
 SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
 20304 IRUN
 Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Anaka kalea, 11
 IRUN
 943.61.54.57

TABISA
 TANATORRO DEL TITANASO

San Pedro kalea, 49
 HONDARRIBIA
 943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



“Kontsumitzaileok behar adina galdera egiteko ohitura hartu behar dugu”

1981ean koltza-olioak eragindako intoxikazio masiboak kontsumitzaileen mugimenduak piztu zituen. Gure eskualdean Bidasoako Kontsumitzaileen Elkartea -ACUBI- eratu zen. Kontsulta kopuruak gora egin du, urtean 1.800era ere iritsi dela.

Elikagaien inguruko kexen garaia atzean geratu da eta gaur egun bizilagunen komunitateak, alokairuak eta telefonia dira kontsulta eta erreklamazio iturri, besteak beste.

- Zein dira zerbitzu honen estatistika nagusiak?

Aurten, irailaren 25era arte 1.350 kontsulta egin dizkigute. Nik uste dut 1.800era iritsiko garela urte bukaerarako. Azken urteotan horixe izan da kopuru orokorra.

- Datu horiei erreparatuta, bidasoarrok aktiboak garena esan daiteke?

Bai, hala da. Acubik zenbait elkarterekin hitzarmenak sinatu ditu jarduerak aurrera eramateko.

Gure informazio lanari esker bidasoarrak, erreklamatzera baino, bulegora batik bat kontsultak egitera etortzea lortu dugu.

- Krisiak aldaketak eragin ditu kontsumitzaileengan?

Bai. Gaur egun kontsumitzaileek erosketa bat egiteko orduan sakonago pentsatzen dute behar duten ala ez. Bestalde, aurrezteko xedez, fakturak arreta handiagoz aztertzen dituzte. Adibide oso

arrunta jarriko dut: telefono konpainiaz aldatzen da jende asko. Arazoa da, prezioaz gain, askok eta askok ez dietela eskaintzen zaizkien bestelako zerbitzuei erreparatzen, eta hortik arazoak sortzen dira.

- Zein dira erreklamazio eta kontsulta iturri nagusiak?

Kopuruaren arabera, hurrenez hurren aipatuko ditut.

- Bizilagunen komunitateak: bilerak, aktak, fakturak, kuenten ordainketa eza...

- Alokairuak: alde batetik, kontratu zaharrak dituzten jabeek ez dute argi zer ordaindu behar duten maizterrek, eta, bestetik, Alokairuen Lege berriak ekarri dituen aldaketak kontsulta-gai dira. Eta, jakina, maizter berantiarrak arazo iturri dira.

- Aseguru-etxeak, odontologoak eta *preferenteak*: alor hauen inguruko kexak berriki agertzen hasi zaizkigu.

- Telefonia: fakturazioa, altak,

bajak, estaldurak, eramangarritasuna, premium mezuak...

- Elektrizitatea eta gasa: fakturazioa egiten duen enpresaz aldatzeak dakartzan arazoak.

- Erabiltzen ez diren etxebizitzetako jabeek Udalak ezarri dien higiezinaren gaineko zergaren % 50eko igoera.

- Kontsulta askok erreklamazioaren bidea hartzen dute?

Bai, kontsulta askoren hurrengo urratsa erreklamazioa izan ohi da. Jendeak, gutxienez, saiatu nahi du.

- Zeinek izan ohi du arrazoa: enpresak ala kontsumitzaileak?

Batzuetan enpresak, bestetan kontsumitzaileak. Beti ez da argi egoten enpresak egiazko informazioa eman duen ala ez. Dena den, kontsumitzaile gisa behar adina galdera egiteko ohitura hartu behar dugu, eta ez soilik prezioari erreparatu.

Belen Martinez, ACUBI-ko idazkaria



Belen, ama Begoña Varonarekin; ama Acubiren sortzaile eta arduradun izan da hainbat urtez.

“Gaur egun kontsumitzaileek erosketa bat egiteko orduan sakonago pentsatzen dute behar duten ala ez”

ACUBIren zerbitzuak

ACUBI Elkartek 1984an ekin zion lanari, eta 1989az geroztik bulegoa Foruen Karrikan dauka, zerbitzua behar duen orori irekia. Edozein enpresari/elkarteri /jaberri buruzko kontsultak egin daitezke bertan, baina erreklamazioa egiteko derrigorrezkoa da ACUBIko bazkide izatea. Abokatu baten zerbitzua dauka, beharrezkoa den kasuetan kontsultak erantzuteko. ACUBIk ez ditu kudeatzen saltoki/enpresetako erreklamazio-orriak.

Kontsumitzailearen Informazio Udal Bulegoak ere erreklamazioak izapidetzen ditu, baina erabiltzaileak Irunen errol-datua egon behar du, eta enpresak ere, bertan kokatua.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com



KALEKO INKESTA

Zer iritzi duzu gazteen aisialdiko lokalei buruz?



Aroia Calvo Lizeaga

Gazteentzat leku onak dira eta normala iruditzen zait biltzeko espazioa bilatzea. Halere, ez da nahikoa: Udalak gazteriarrentzat egokiak diren tokiak eskaini beharko lituzke. Martindozenea gaztelekuari buruz, koka-pena ez dela aproposa esango nuke.



Andres Costas

Niri ez didate inolako arazorik sortzen. Araudiak egokiak dira; baina, ene iritziz, kasu batzuetan gehiegi arautzen da. Adostasunak lortzeko biderik aproposena bizilagunen eta horrelako lokalen erabiltzaileen arteko komunikazioa indartzea da.



Juan Gibaja

Mugak jarri behar direla uste dut. Ni bizi naizen kalean halako bi lokal daude eta arazo iturri dira: kalean baloiarekin jolasten dira, lokala zikina dago... Arauak jartzea ongi iruditzen zait, baina bete egin behar dira. Bizilagunen eta gazteen arteko bizikidetzeta eta errespetua bultzatu behar dira.



Tania Conejero

Ez zaizkit egokiak iruditzen, gazteek zarrata egiten dutelako eta, ondorioz, bizilagunak molestatu egiten dituzte. Erakundeek bizikidetzarako arauak ezartzea komeni dela uste dut. Kontu honengatik gatazkak hurbiletik ezagutu ditut, baina arauak jarrita konpondu ziren.



Fernando Arozena

Ongi deritzot erabilera horretako lokalen jarduera arautzeari; alde batetik, legeari egokitzeko, eta, bestetik, bizikidetzeta arazoak ekiditzeko. Arautzea komeni da, baina Udalak gazteriari lokal publikoak eskaini beharko lizkiokela uste dut. Horrelako espazioak eskas daude eta Udalak bitartekoak jarri behar ditu.



Lourdes Beltran

Nik uste dut lokaletan dabilzan gazteen gurasoek gehiago kontrolatu beharko litzuketela beren seme-alabak. Batzuk oso gazteak dira horrelako lokaletan ibiltzeko. Bizilagunekiko harremanei dagokienez, era guztietako esperientzien berri izan dut. Egoki deritzot bizikidetzeta hobetzeko arauak proposatzeari.



Isabel Diez Aranguren

Gazteentzako halako lokalak ongi daude, biltzeko toki baten beharra dutelako. Oso kontuan hartu behar dute, ordea, inor molestatu gabe erabili behar dutela espazio hori. Arautzea ideia ona da, horrela gazteak tentuz ibiliko dira eta. Nik ez dut halako arazorik, baina zenbait kasuren berri izan dut.



Txomin Ruiz

Duela 13 urte lokal bat alokatu nuen lagunekin kalean bildu behar ez izateko. Bertan patxadan egon ohi gara: telebista ikusten, berriketan, jolasean... Horrelako toki bat edukitzea oso eroso da. Ez dugu sekula bizilagunekin gatazkarik izan.



Abian da gazte lokalen eta auzokoen arteko bizikidetza hobetzeko protokoloa



Lokalen baldintzak eta konpromisoak

Lokalaren baldintzak

- Behe-solairuetan egotea eta sarbide egokiak izatea.
- Ur korrantea, instalazio elektriko egokia eta larrialdietarako argia.
- Komuna eta su-itxalgailua.
- Pertsona bakoitzeko 2na m², eta gehienez 40 lagun.

Konpromisoak

- Atxikipen-dokumentua aurkeztea Udalean.
- Erantzukizun zibileko aseguru edukitzea hirugarrenen aurrean.
- Lokala ez erabiltzea etxebizitza, komertzio edo salmenta-gune modura.
- Higieneko, zarataren kontroleko eta segurtasuneko gomendioak kontua hartzea.
- Zarataren, bide publikoaren, edari alkoholdunen eta abarren gaietan indarrean dagoen araudia betetzea.

Ordutegia

- I Gandetik ostegunera, 09:00etatik 23:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 09:00etatik 01:00era.
- 23:00etik aurrera soinurik ez egitea.

Azken urteotan aisialdirako gazte lokalak ugartu dira. Irunen, 100 baino gehiago izatera ere irisi dira. Udaleko Gazteria Arloak erabiltzaileen eta bizilagunen arteko bizikidetza bermatzea xede duen Protokoloa abian jarri du. Udala kontent dago orain arten izan dituen emaitzekin.

Protokoloak gomendio batzuk jasotzen ditu, lokalen baldintzei eta funtzionamenduari buruzkoak. Halaber, bitartekotza zerbitzua eskaintzen du, denon interesak eta eskubideak harmoniza daitezen. Gazteek, atxikipen-itun baten bidez, gomendioak betetzeko konpromisoa har dezakete. Jabeek badakite zein den gazteei lokal bat alokatzeko gutxienezko zat jotzen dituen baldintzak eta bizilagunek aukera

daukate sortzen diren arazoak adiskidetasunez konpontzeko. Helburua ez da jardura-lizentziarik ematea.

Emaitza onak

Gazteria Arloa pozik dago orain artekoan Protokoloak emandako emaitzekin. Hezitzaile bat lokalez-lokal informazioa zabalitzen ari da eta Udalak bizilagunen elkarteekin nahiz gazteekin bilerak egin ditu. Bai batzuek bai besteek interesa eta

parte hartzeko gogoia agertu dute.

Gazteen aldetik, lehenengo atxikipenak ere eman direla azaldu dute Gazteria Arlotik.

Bitartekaritza zerbitzuari dagokionez, aurreneko kasuak kudeatzen hasi da. Honi esker lortu da arazoak izan dituzten zenbait bizilagunek, polizari deitu beharrean, bitartekaritzara jotzea.

Gazteria Arlotik azpimarratu dute Protokoloa denon ekarpenetara irekia dagoen bidea dela.

Gazteen iritzia

Gazteen iritzia jasotzeko asmoz, bi lokale-tako erabiltzaileei bisitan joan zaie Iru-nero.

Lokala kalean bildu behar ez izateko alokatu zutela diote. Gazte bakoitzak 15 bat € ordaintzen ditu hilero. Bertan jokatzeko, telebista ikustea eta afaltzea bezalako jar-

duerak egitea dituzte gustuko.

“Bizilagun gehienekin ongi moldatzen gara, baina beti bada baten bat edozer konturengatik haserretzen dena”, diote Eguzkitza kaleko talde batekoek. Berio kaleko taldeak lokala alokatu berria du. “Aurrerokotik bota gintuzten, insonorizatuta ez zegoenez bizilagunei traba egiten genielako. Oraingo honetan ez dago arazorik, goian bulegoak ditugu eta”.

Bi koadrilek proposatutako ordutegiarekiko desadostasuna agertu dute. “Maiz hemen afaltzen dugu eta berandu arte geratzen gara. Zer egingo dugu, bada? Ixteko ordua iritsita kalera irtetzen bagara norbait molesta dezakegu”. Horixe, Eguzkitza-kaleko kezka.

Oraindik proposamena sakon aztertu ez badute ere, orokorrean konforme daude gainontzeko baldintzekin.

La agrícola

J A T E T X E A

Eguneko menuak, asteburukoak, karta,
mota guztietako ospakizunak

Alzukai, 1. IRUN Tel: 943 244 118

“Arxibozain lanak munduko gizonik zoriontsuena sentiarazi nau”

Duela 40 urte emakume batenganako maitasunak Irunera ekarri zuen eta gurean arxibozain lanak bihotza harrapatuta geratu zen. Jose Monjeri erretiroa hartzeko ordua heldu bazaio ere, irrikitan dago arxibora bueltatzeko; baina, hemendik aitzina, historia-ikertzaile gisa.

- Nolatan ekarri zintuen bizitzak Irunera?

Zamoran sortu eta Valladoliden eman nuen gaztaroa. 1973an neska batek sanmartzialetara gonbidatu ninduen. Hemen geratu nintzen; ikasketak eta soldaduska amaitu baino lehen! Maitasunak harrapatu ninduen. Lana topatzea ez zen erraza garai hartan. Orduko udal liburategia, San Martzial kalean zegoena, ez zegoen jendeari irekia. Celestino Ojeda apezak eta biok lan boluntarioa egin genuen hura txukuntzeko. 1977an ireki zen. Udal gestorearen presidente zegoen Julen Elgorriagak Udalean kontraturik gabeko jendea lanean ari zela ikusi zuen. Ondorioa izan zen Kultura arloan jarduteko kontratua egin zidatela. Aurrerago, 1983an arxibozain plaza eskuratu nuen.

- Irungo lehenengo arxiboa

1560koa da. Ardura handia sentituko zenuen.

Munduko gizonik zoriontsuena sentitu nintzen! Zorte handia izan dut nire zaletasuna nire lana delako eta gainera ordaintzen dadelako!

“80ko hamarkadan 1900dik aurrerako zer dokumentu zegoen ere ez genekien”

- Zein izan zen erronkarik behinena?

Administrazioaren arxiboa udal txeko hainbat lekutan sakabanaturik zegoen, eta leku desegokietan, gainera: ganbaran, non ura sartzen baitzen; eskailera azpiko hutsunean...

Pentsa, 1900. urtetik aurrerako zer dokumentu zegoen ere ez genekien.

Lehendabiziko lana materiala ebaluatzea eta sailkatzea izan zen. Jarduera hori aurrera eramaten izugarri lagundu zidan Cesareo Murugarrenek, komunista izateagatik gerra garaian sekulakoak pairatu zituen gizon batek. 80ko hamarkadaren erdi aldera

Jose Monje, Irungo arxibozaina



Udalak eta Kutzak Ikust-Alaia etxea erosi eta bertan arxiboa kokatzea erabaki zen.

- Zein da Irungo arxiboaren garrantzia?

Alderdi sentimentaletik, garrantzi ikaragarria du. Ikuspuntu matarialetik, ezin da kuantifikatu, eta balio kultural berebizikoa du. Halaber, arxiboa oso inportantea da eskaintzen dituen zerbitzuenagatik: langileak, azpiegiturak...

Noizbait galdetu didate: zertarako gorde horrenbeste paper? Bada, adibide erreala ipiniko dut: Abenida zubiko ordain-saria kentzearen truke Madrillgo go-

bernuak Iruni obra zibil bat ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. 80ko hamarkadan San Antongo urtegia Madrilen diruz eraiki zen, agindutakoa frogatzeko gutuna arxiboan gordeta zegoelako.

- Zein dira arxiboan gordetzen diren dokumenturik aipagarrienak?

Hemen ditugu lehen udal akta-liburua, 1645. urtekoa, eta 1766ko jurisdikzio-exentzioaren zedula; alegia, Irunek Hondarribiaren independentzia lortu izanaren agiria.

Bitxikeria gisa, kaparetasun-espeditenteak. Antzina kapareek

boto eskubidea zuten, besteak beste; hortaz, kaparetasuna lortzea guztiz inportantea zen. Hartara, eskatzaileak jabetzak zituela, kristau zaharra zein jatorri noblekoa zela... frogatu behar zuten.

Gerle buruzko dokumentuak interesgarriak dira, baita Europako erregetzekin harremana zuten pertsonaiek Irundik igaro izanarekin lotutakoak ere.

- Papera gero eta gutxiago erabiltzen da.

Arxiboko espazioa ia-ia beteta dago. Ezin da martxa honetan papera metatzen jarraitu. Joera dena digitalizatzea da.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa

- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu



Ezkerrean, bazkide talde bat. Goian, egoitzako kanpo aldeko graffiti-tia. Behean, elkarteak antolatutako txango bat.



Argazkilaritza, grina

Argazkilaritzaz hitz egitean irundarroi modu naturalean elkarte bat etortzen zaigu gogora. Irungo Argazki Elkarte biziki ekintzailea delako, aise egiten da lotura. 160 bazkidek partekatzen dute Izaga kaleko egoitza, eta askoz ere gehiago: argazkilaritzarekiko benetako grina.

Iaz Espainiako Argazkigintza Konfederazioaren sari nazionala eskuratu zuen.

Hirurogeita hamarrekoen hamarkadaren amaieran sortu zen eta lehenengo egoitza Junkaleko eskola zaharretan eduki zuten. Handik gutxira, Foruen karrikako satora lekualdatu ziren. Duela bi urte Izaga kalean dute topalekua, hobekuntza nabarmenak ahalbidetu dizkiena. "Jarduera gehiago antolatzeko, baldintza egokiko argazki-estudioa apailatzeko eta bazkide kopurua handitzeko aukera eman digu", azaldu du Gerardo Garcia presidentek. "Gainera, lurrazpitik atera eta jendearen begi bistako egoitza izatea oso inportantea izan da, gure presentzia areagotu delako".

Barruko jarduera

Bazkideek astelehenero hitzordua dute egoitzan. Gerardo Garcian esanetan, "beti daukagu jarduera bat programaturik; esaterako, bazkide baten lanaren proiektzioa. Hortik solasaldia sortu ohi da. Oso giro polita dago. Egia esan, ohiko parte-hartzaileok talde honen, zaletasunaz haratago, bizitza soziala ere partekatzen dugu". Elkarteak argazkiak egiteko irteerak antolatzen ditu. Urtean behin txango bat egiten da, argazkilaritza eta turismoa uztartzen dituen.

Halaber, talde txikitik adostutako hainbat txango burutzen dituzte. Asteazkena "teknikaren eguna" dute kideek. Esperientziak partekatzeko tailerrak egiten dituzte. Artistek izan ditzaketen errezeloetatik urrun, "bazkideek euren ezagupenen berri

ematen dute arazorik gabe".

Kanpora begirako jarduera

Urtero, Gabonak igaro ondoren, ikastaroa antolatzen du IAEK. Hauxe da harrobi nagusietako bat. "Ikastaroetan gure zaletasuna helarazten saiatzen gara. Ikasleek nabaritzen dute, eta amaitu ondoren batzuek gurekin jarraitu nahi dute", dio presidentek. "Irun Hiria" IAEK antolatzen duen lehiaketa nagusia da. Sona handikoa da, horren lekuko, parte-hartzaile ugari izaten dituela; lanei dagokienez, 300dik gora. Aurtengoan argazkiak aurkezteko epea urriaren 21ean itxiko da. (Ikus Iruneroren 14. orrialdea).

Sanmartzialetako herrikoia ere klasiko bilakatu da, baita Baztan-Bidasoa Argazki Rallya ere. Azken hau Bidasoako Izokinaren Elkartearekin batera prestatzen da. Bazkideen lanak egoitzan zein Laboral Kutxaren aretoan egiten diren eraketetan ikusgai egon ohi dira. Aipagarria da, era berean, eskualdeko lehiaketak antolatzeko eta, oro har, argazkilaritzarekin harremana duen zernahitarako laguntza eskaintzen duela. 160 bazkide ditu Elkarteak, horietako asko oso ekintzaileak, eta gainera onak; izan ere, Irungo Argazkilaritza Elkartearen kide zenbaitek nazioarteko sariak usu irabazten dituzte.

Berri pozgarria jaso zuten iaz, Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak Argazkigintzako Sari Nazionala eman zienean.

Martiarena S.L.
SISTEMA ELEKTRIKO INTEGRATUAK

Teknologia berriko LED argiak

- ✓ Instalazio elektrikoak orokorrean
- ✓ Dekoraziorako eta industriarako argiztapen azter-lanak
- ✓ Telefono instalazioak
- ✓ Informatika-sareak: ahotsa eta datuak, kobrezkoak zein zuntzezkoak (ziurtagiridunak)
- ✓ Instalazio domotikoak
- ✓ Argiztapen instalazioak zuntz optikoan

Sallis hiribidea, 32 behe. Tel 943 630 710 - 609 406 735 - Telekopia 943 639 761
martiarenasl@martiarena.es - info@martiarena.es - www.martiarena.es



Erroibide Saskibaloia Kluba, jokalari gazteen formakuntzan nagusi

2004ko udan eman zituen bere lehendabiziko urratsak Irungo saskibaloia talde honek. Nahiz eta hasieran gauzak erraz ez izan, guraso talde borrokalari baten esfortzuak garaipenez beteriko bidea ireki zuen. Hala ere, Erroibide Saskibaloia taldean, emaitzen gaintik, neska-mutilen gaitasun fisiko eta intelektualen garapena dago.

Erroibide Saskibaloia Taldearen sorrera urrun geratzen da bere jokalaria, entrenatzaile eta presidentearantz. Gauza asko lortu dituzte 2004tik gaur egunera arte. Emaitzak bikainak izan dira, bai mutiletan, baita nesketan ere. 8 taldek osatzen dute, egun, saskibaloia familia irundarra, eta hasiera latzak iraganeko amesgaiztoa besterik ez dira. Gazte burugogor batzuen ilusio eta ametsetatik sortu zen proiektu interesgarri honen lehen pausoak maitasunez gogoratzen ditu Enrique Lopez taldeko presidentek: "Eskola Kirola bukatu ondoren, gure semeek saskibaloian jokatzen jarraitu nahi zuten. Hainbat lekutan galdezka ibili ginen, baina erantzun guztiak ezezoak izan ziren. Hori dela eta, geure taldea eratzea erabaki genuen". Talde bakarrekin hasi zen proiektua, Irungo kaleetan oihartzuna lortzen hasi zen eta jokatze irrikatan zeuden gero eta gazte gehiago elkartu ziren. Talde bakarra izate-tik 8 izatera pasatu zen Erroibide.

Taldea, gero eta handiagoa

Urtero, gero eta gazte gehiago hurbiltzen dira taldearen bulegoetara izena emateko asmoz. Nahiz eta talde teknikoarentzat pozgarria izan, dituzten espazio arazoak larri arduratzen ditu. "Lekuarekin arazo ikaragarria dugu; izan ere, astean zehar ditugun kantxak gure gainontzeko taldeek hartzen dituzte" dio Jose Maria Miguel

Bores zuzendari teknikoak. Horretaz gain, jokalariek ezin dute inoiz pista osoan jokatzea eta horrek gauzak asko zailtzen ditu, Boresen ustetan. "Eraso eta defentsa sistemak ondo entsaiatzea komenigarria da, lehiatzeko orduan asko nabaritzen baita". Ander Loidi jokalaria gaztearentzat ere oso garrantzitsua da: "aurkari gehienek gu baino egun eta ordu gehiago sartzen dituzte eta askok beraiek bakarrik erabiltzen dituzten instalazioak dituzte".

Krisia eta kirola

Krisia ere kirol mundura iritsi zen aspaldi, eta Erroibide Saskibaloia Taldeak, gainontzeko kirolek bezala, nabaritu egin du. "Krisia alor guztietan nabaritzen da; hori dela eta, betidanik kontabilitate zorrotza eramanen saiatu gara, eta ezinbestekoak diren gastuak besterik ez egiten" dio Enrique Lopez zuzendariak. Egoera honetan oso garrantzitsua izan da Carnicas San Marcial bezalako babesleen laguntza.

Bestalde, gaur egungo kirol aukera ikusita ez da erraza gazteentzat kirol bakarra aukeratzea; baina Erroibideko zuzendari teknikoak zehaztasunez dioenez bezala, "saskibaloia oso kirol erakargarria eta dinamikoa da, eta horri esker gu baino tradizio, baliabide eta giza-oinarri handiagoa duten Irungo hainbat talderi aurre egin diezaikegu".



Eskolako gaztetxo talde bat Jose M^a Miguel Bores zuzendari teknikoarekin



2012-2013 denboraldiko eskola.

Formakuntza, bereizgarri nagusia

Erroibide Saskibaloia Taldearen bereizgarri nagusia da gazteen formakuntzari eskaintzen dion garrantzia. "Neskato eta mutilen balioek duten garrantzia erakustea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Kirolari bezala formazio etengabea izatea garrantzitsua da, baina baita pertsona bezala ere. Horregatik, saskibaloia hezitzaile baten alde egiten dugu".

Txingudi Korrika: 700 lasterkari helburu

Urriaren 5ean izango da Txingudiko Badia zeharkatzen duen lasterketa herrikoia. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da eta lehendabiziko korrikalariak ordu erdi batean iritsiko dira helmugara. Aurtengo helburu nagusia 2000. urteko 722 korrikalarien muga gainditzea da.

Gure eskualdean tradizio gehien duen lasterketa iristear da. Txingudi Korrikak 1998an eman zituen lehendabiziko urratsak eta hurrez geroztik kirol-egutegiko ezinbesteko hitzordu bihurtu da korrikalari askorentzat. Aurtengoa XV. edizioa izango da eta, korrikalarietz gain, patinatzaileek ere parte hartuko dute. Azken hauek gainontzeko korrikalariak baino 10 minutu lehenago hasiko dute lehia. Hendaia, Irun eta Hondarribia zeharkatzen dituen kirol proba honetan parte hartu nahi dutenek izena emateko bi modu dituzte. Lehendabizikoa Internet bidezkoa da. Urriaren 2ra arte Kirol Probak (www.kirolprobak.com) atarian sar daitezke, eta agertzen diren urratsak jarraitu. Bestetik, lasterketaren irteeran bertan izena emateko aukera ere badago. Izen-ematearen prezioari dagokionez, 10 eta 15 euro artekoa izango da, txip motaren arabera. Hauek Super Amara- Bidasoa Atletismo Taldearen egoitzan (Ramon Iribarren kalea 4.eko beheko solairuan) jaso ahal izango dira, urriaren 3an eta 4an, 17:00etatik 20:00ak arte. Horretaz gain, lasterketaren egunean ere, irteeran bertan, jaso ahal izango dira 15:00etatik 16:15era.

Antolatzaileek hiru autobus jarriko dituzte kirolarietara irteera puntura iritsi daitezkeen. Ordutegiak honako hauek izango dira: 15:00etan, 15:15ean eta 15:30ean. Autobusen irteera Butron Pasealekuaren hasierako autobus geltokian izango da (Hondartzako

kiroldegiko aparkalekutik gertu) eta prezioa, berriz, 1,50 eurokoa. Bestalde, 20:00ak arte irauko duen itsasontzi zerbitzua ere eskura izango dute parte-hartzaileek. Haren prezioa 1,70 eurokoa izango da.

Horretaz gain, irteeran ibilgailu bat egongo da, nahi duten partaideek motxilak utzi eta ondoren helmugan jaso ditzaten. Gainera, partaideek Hondartza Kiroldegiko dutxak eta aldagelak erabili ahal izango dituzte. Proba amaitzean opari-sorten zozketa eta sari banaketa egingo dira.

Aurreko edizioan Lionel Petriacq baionarrak lortu zuen garaipena, helmugako azken 80 metroetan Iñaki Gebrero irundarra gainditu ostean. 31'42" denbora bikaina egin zuen Iparraldekoak. Podiumeko azken kaxa Jon Lorenzo hondarribiarrak lortu zuen, irabazlearengandik 1'22"ra. Emakumezkoetan Claudia Behobide izan zen garaile, 38'23"ko denborarekin. Haren atzetik Super Amara-Bidasoa Atletiko Taldeko Itsaso Escondrillas eta Nerea Etxeberria azpeitiarra sartu ziren helmugan. Aurten, XV. Txingudi Korrika honetan, eguraldiak laguntzea eta 722 parte-hartzaileen muga gainditzea espero dugu.

Informazio gehiago eskuratzeko:

http://www.kirolprobak.com/competicion_ficha.php?id=878&lang=eu

<http://www.atletismobat.com/index.php?lang=eu>



Iazko Txingudi Korrikaren zenbait argazki.

COMPRO ORO Y MÓVILES

Aduana kalea, 3
943 614565 IRUN



T. 678 617 907

mgrotulos@gmail.com

Pedro Manuel
Aristegui kalea, 12
IRUN

Toki Alai 5. maila

ANIMALIEN BITXIKERIAK

Orain hemen irakurriko duzuna zenbait animaliaren bitxikeriak dira.

Agian, zuk gehiago ezagutzen duzu.

- Txoriei fisikoki ezinezkoa egiten zaie zerurantz begiratzea.

- Arratoiak oso bizkor ugaltzen dira, 18 hilabetetan milioi bat kume izateko gai dira.



- Behi batek eskailerak igo ditzake baina ezinezkoa zaio hauek jaistea.

- Ostruka baten begia bere burmuina baino handiagoa da.

- Gamelu bat hamar egun egon daiteke ura edan gabe, baina ura aurkitzen duenean 106 litro jarraian edan ditzake

- Eltxo batek pertsona bat 50 km-tara usain dezake.

- Krokodilo baten burmuina pertsona baten erpurua baino txikiagoa da.

- Bela-arraina itsasoko arrain bizkorrena da, 110 km orduko abiadura igeri egin dezake.

- Armiamek egiten duten sarea, naturan aurki dezakegun materialik sendoenetarikoa da.

- Koloretako arrain gehienek 3 segundutako memoria besterik ez dute.

- Zizare batek 10 bihotz ditu bere gorputz osoan zehar.

- Euli batek botaka egin ondoren, berriz ere, botatakoa jateko gai da.



Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko siltitak
- Sehaskak
- Haur kotxeak

GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA


Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



maxibebé

Zure jaioberria
zaintzen dugu

Aberatsak gara!!!



Balio positiboetan heztea ez da beti erraza izaten; baina guraso eta irakasleok gogoan eduki behar dugun erreferentzia da, gure ingurukoak edertasun eta zoriontasunean bizitzea nahi badugu. Haur eta gazteen gogoan gauza material asko edukitzea dago: telebistako protagonista baten mantala edo karpeta, futbolari famatuaren markako plaiarak, merkatura aterata den patinete berria, teknologia berrien azken modeloa edo jokia...

Krisia dela eta materialtasuna beste modu batean eramaten ikasi behar dugu. Ezin dugu hainbeste gauza material eduki, eta gainera argi dugu haur edo gazteentzat ez dela balio positibo bat, ezta? Gauzek ez digute zoriontasuna ematen; dirua beharrezkoa dugu, baina ez da beti zorion iturria; gainera gaur egun denok beste modu ez hain kontsumista batean bizitzen ikasi beharko genuke gure oinorde-

koei mundu duin eta osasuntsua utzi nahi badiegu.

Eta hau dena bideratzeko, zer esan haurrei???

Aberatsa izatea ez da beti zerbait materiala, gauzak izatea. Aberastasun mota asko daude: gu aberatsak gara lagunetan, maitasunean, familian, naturan, aberatsak irudimenean, aberatsak sentimendu eta zentzumenetan. Normalean haur edo gazteei gure ahotik hitz hauek benetan ateratzen direla fermuki azaltzen badiegu, irria eta harrotasuna sentiaraziko diegu. Zergatik? Horien atzean gizakiaren ongizatea bideratzen duten balio positiboak daudelako:

ABERATSAK GARA LAGUNETAN: lagunekin ongi pasatzen dugu, dibertitzen gara. Baina zer da lagunetan aberatsak izatea? Laguntasuna eman eta jasotzea da, eskatu eta ematearen kantitatekin neurtu gabe. Gure lagunak

zerbait behar edo eskatzen duenean pentsatu gabe ematea, ematearen plazerra sentituz. Gu gaizki edo ongi gaudenean, gure sentimendu eta emozioak epaiketarik gabe jasotzen denean. Lagunak ez dira zenbatzen, sentitu behar dira; ukitu, begiratu eta entzun.

ABERATSAK GARA FAMILIAN: gaur egun hamaika familia mota daude, familia aniztasunean bizi gara. Familiaren oreka ez dator familia ereduaren baitan, familiak bizi dituen balioen kalitatean baizik. Zein da familiaren balio garrantzitsuenetakoa?? Baldintzarik gabeko maitasuna. Familia artean gaudenean, badakigu (edo jakin beharko genuke) edozein gauza gertatuta, edozein akats izanda ere, gu laguntzeko prest daudela eta beti jarraituko dutela gu maitatzen. Familia seguru batek garen bezala onartzen gaitu, kooperatiboa da gurekin, behar dugunean eskuragarri dago.

Benetako familia ez da beti biologikoa izaten eta balio hauek ere lagunaren artean eman daitezke. Tamalez, ez dugu gure familia hautatzen eta, haren eredu onuragarri ez zaigunean, familia biologikoa izan beharrean laguntasun familia eraiki dezakegu, baldintzarik gabeko maitasun eta laguntasuna ematen digun lagun familia. Gaur egun ikus dezakegu lagun talde sendoak familia baten balioak dituela. Zergatik ez? Gora aniztasuna!!!!

ABERATSAK GARA MAITASUNEAN: maitatzeko ahalmena dugu, bai eta maitatuak sentitzeko ere. Maitasuna benetan sentimendu positiboa da, bizirik jarraitzeko motibazio indartsua, egunero zoriontasunaren bidean egotearen sentimendu sakona. Egunero maitasuna eman eta jasotzen dugu eta gure ongizatea bideratzen du. Norbaitek esan zidan noizbait bakarrik hil egiten garela. Nire ustez eman eta jaso dugun maitasun eta laguntasun guztiarekin hiltzen gara.

Hezkuntza erreferentzia:

Gure haurrek zerbait materiala nahi dutela adieraztean edo beste haurrek zenbat gauza duten kontu kontari datozenean:

- Gauza asko edukitzea ez da beti posible, eta gainera gu beste alor batzuetan gara aberatsak: aberatsak gara maitasunean, familian, lagunetan, irudimenean...

Aberastasun iturri eder hauek

- ▶ ematearen gozamina,
- ▶ jasotzearen eskerra,
- ▶ bestearekiko maitasuna sentitzea

Besteek guregatik sentitzen duten maitasunaren sentimendu eta emozioak... elkar nahasiak daude familia edo lagunaren ereduaren bidez. Bizitzan zoriontsu sentitzearen iturri nagusiak dira eta pertsonen garapen psikiko, fisiko eta sozial positiboa helarazten dute. Gizartearen joera beti pertsonen alde negatiboa ikustea da, baina gure esku dago gure inguruko haur, gazte, edo helduei beste aldea adieraztea. Mintzaldi hau gurea egiten badugu eta gure ingurura zabaldu, zoriontasunaren bidean gaude eta gogorki sentitzen dugun krisi honetan egokitzen ariko gara. Berreskura ditzagun materialismo eta kontsumismo gizarteak galarazi dizkigun balioak!

Izan zoriontsu maitatuz, maitasuna jaso, laguntza eman eta laguntza eskatuz. Hurrengo atalean aberats sentitzeko alor gehiago!!!! Sarri arte!!!!

MAPI URRESTI ORTIZ

Kuttun@kuttun.net


Baseclick

Ekitaldi gastronomikoen antolaketa ▶
Komunikazioa ▶ Ikuskizun artistikoak

www.baseclick.es



baseclick



Greziar Mitologia

Greziar mitologia ezaguna da. Gai hau pertsona askori gustatzen zaionez, eta Hades eta Persefeneren mitoa politena denez, mito hau idaztea erabaki dugu.



Demeterrek, nekazari-tzaren jainkosak, alaba bat izan zuen Zeusekin, Persefone, eta harenganako amodio bitxia sentitzen zuen. Egun batean, Hadesek, infernuaren jainkoak, Persefone ikusi zuen, eta hain polita iruditu zitzaion, berarekin maitemindu zen. Horrela, Hadesek lurra ireki eta Persefone eraman zuen, berarekin ezkontzeko.

Demeterrek, erabat etsituta, bere alaba bilatu zuen egun askotan, gau eta egun. Non zegoen jakin zuenean, infernura jaitsi zen bere eginbeharrak ahaztuz. Horren ondorioz, lurra lehorra eta antzua geratu zen, lorerik eta fruiturik gabe.

Zeusek ikusi zuen gizakiek lurra behar zituztela, eta Hadesi eskatu zion Persefone bakean uzteko. Hortik aurrera, Persefonek zortzi hilabete bere amarekin pasa zituen eta lurra loratu zen, baina beste lau hilabete-tan bere senarrarekin, Hadesekin, egon zen eta hilabete horietan lurra ez zen loratu. Lau hilabete horiei negua deitzen diegu.

Vero eta Alvaro,
DBH-4. Hirubide BHI



ZER DA COMMUNITY MANAGER BAT? DENEK ULERTZEKO MODUAN AZALDUA



Community Manager bat pertsona bat da (proiektu handietan, lantalde bat) marka edo produktu baten eta haren erabiltzaile edo balizko bezeroen arteko zubi-lana egiten duena. Denok gara kontsumitzaile, eta Interneten produktu batzuekin izaten ditugun azturak edo esperientziak kontatu ohi ditugu. Iritzi horiek guztiak oso modu interesgarrian balia ditzakete markak, duela gutxi arte oso garesti bazitzairen ere:

- Produktu edo aktibitate berri bat ezagutarazi dezakegu.
- Markaren irudiaz dagoen pertzepzioa hobetzen lagundu dezakegu.
- Gure bezeroen asebetetze maila ezagutu dezakegu.
- Haien profilari errepara diezaikegu, gure eskaintza haren arabera moldatzeko.
- Gure produktuen puntu ahulak ezagutu ditzakegu.
- Erabiltzaile batzuek gure lehiakideen produktuak zergatik nahiago dituzten jakin dezakegu.
- Modurik eraginkorrenean erantzun diezaikegu gure erabiltzaile edo balizko bezeroen komunikazio-beharrei, hartara sare sozialak edo arrakasta handiko bestelako bitartekoak baliatuta.

Enpresa batzuek sarean presentzia aktiborik ez duten arren, haien produktua bai egon daiteke, erabiltzaileen iritzi modura adibidez.

Community Manager batek kudeatzen ditu erabiltzaile komunitate horiek, edo sortzen ditu, aurretik egon ezean; eta xaxatzen ditu, kitzikatzen, ki-deen kezka markari helarazteko komunikabidearena eginda. Haren lana norabide biko da erabat; areago, Community Managerra gakoa izan daiteke markaren irudi eta komunikazioaren inguruan sortutako gatazkak edo egoera kritikoak konpontzeko.


Egitekoak, beraz, askotarikoak ditu, eta egunerokoan jendetasuna eta tre-bezia erakutsi beharko ditu, bai eta marketinarekin, komunikazioarekin eta web baliabideekin zerikusia duen guztian ezagutza sakona ere.

Sare sozialak, blogak, on line foroak eta iritzi bat emateko edo harreman sozial bat ezartzeko balio dezakeen web oro izango ditu, bada, lan esparru.

Zeure enpresan bezeroak ezagutzeko eta haiekin harremana hobetzeko kezka baldin baduzu, lagundu zaitzakegu, eta aholkuak eman, arrakastaz egin dezazun. Ez izan beldurrik, nahita edo nahi gabe, zure marka jadanik Interneten dago. Zure esku dago hartaz esaten dena kudeatzen hastea.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia.
3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari
internetetik zabalitzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

Ikas Sasoi programak gaztetxoek arteak kirola sustatu nahi du

Irungo Udalak, Osakidetzarekin Eusko Jaurlaritzako Osasun departamentuarekin batera eta beste hainbat gizarte eragilerekin, Ikas Sasoi programa abian jarri du. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek arteak jarduerak fisikoa sustatzea eta ohitura sedentarioak saihestea ditu jomuga nagusi.

2013-2014 ikasturte hasiera honetan martxan jarriko dira proposamenak.



Hamabi urtetik aurrera jarduerak fisikoa egiteko ohiturak behar egiten du. Errealitate horretatik abiatuta, gaztetxoei zuzendutako programa bat diseinatu aldera, Udalak inkesta bat gauzatu du Irungo 12 eta 16 urte bitarteko ikasleek arteak. Ondorio nagusienetakoa da Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako gutxienez %50ek eta nesken %58k egunero bi ordu luze pantaila aurreko zeregintan igarotzen dituzte, eta asteburuan portzentajeak %77 eta %78 iristen dira.

Jarduerak sendentarioei dagokienez, astelehentik ostiralera mutikoen %50ek eta nesken %58k egunero bi ordu luze pantaila aurreko zeregintan igarotzen dituzte, eta asteburuan portzentajeak %77 eta %78 iristen dira. Pedro Alegre Kirol Ordezkariek programaren zeharkako izaera nabarmendu zuen, Udaleko hainbat arlo zein Osakidetzak eta Osasun Ministerioak ere lan prozesuan parte

hartu dute eta. "Osasun zentroekin, ikastetxeekin eta gure hiriko beste eragile zenbaitekin gure esku dagoen guztia eman nahi dugu gazteriek kirola egiteko erraztasun guztiak izan ditzan", adierazi zuen zinegotziak.

Ikas Sasoi programa lantzeko, ikastetxeetara jo dute arduradunek, eta bertan, inkesta zein lan-talde bidez, ikasleek iritziak eta ekarpenak jaso dituzte.

Fernando San Martín Hezkuntza Ordezkariek gaztetatik ohitura osasuntsuak barneratzearen garrantzia azpimarratu zuen, "garapen pertsonalerako beste balio bat bezala".

Maribel Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren saileko zuzendariordearen iritziz, programak garrantzia handia dauka "gaztetan garatzen diren ohiturak heldutasunean jarraipena izan dezaketelako eta, jakina, helduen osasunean eragina dute".

Proposamen zehatzak

Guztira 23 proposamen jaso zizkizuten. Hona zenbait:

- Irunen kirola egiteko dauden aukeren inguruko informazioa bidaliko da ikastetxeetara: kiroldegia, klubak, gimnasioak...
- Deskontuak kirol materialean
- Ekimen zehatzak antolatuko dituzte, esaterako, Ikas Sasoi hila-betea.

- Kirola egiteko hirian gune bereziak apailatzea.
- Gainera bestelako ekintza osagarriak aztertuko dituzte:
- Ikastetxeek antolatutako txangoak/irteerak
- Laster batean Irun Kirolen web orrian egitarau osoa jasota gertatuko da: www.irun.org/irunkirol/

DONE JAKOBE ASTEA TXINGUDIN EGITARAUA

URRIAK 13
Amaia KZn, 19:00etan, HARRIOTS taldearen kontzertua



URRIAK 14-27
Laboral Kutxan, Angel Gonzalezaren argazki erakusketa Santiago Bideei buruzkoa.

URRIAK 15
Amaia KZn, 19:00etan, ikus-entzunezkoa: "El Irun jacobeo, a través de viajeros y escritores". Aitor Puchek aurkeztuta.

URRIAK 18
Amaia KZn, 19:00etan, ikus-entzunezkoa: "Los caminos inventados y esoterías jacobeoas", Luis Toribiok aurkeztua.

URRIAK 16
-Amaia KZn, 19:00etan, film proiektzioa: "Te llevaré al fin del mundo".

URRIAK 17
Amaia KZn, 19:00etan, ikus-entzunezkoak: "El camino hacia la meta. Santiago" eta "El Camino de Santiago, mágica experiencia".

URRIAK 20
Santiagoko zubitik, 9:30ean, ibilbide gidatua, Luis Toribioren eskutik, Santiago bidearekin harremana duten leku esanguratsuak ezagutzeko.



Lehiaketak

- **XI. PUZZLE-TXAPELKETA, FAMILIA ARTEKOA EDO TALDEKA**
Eguna: urriak 6, igandea
Ordua: 10:30 - 13:00
Tokia: Palmera-Montero (Zura jatetxearen ondoko plaza)
Izen-ematea: 648.028.590 telefonora deituz edo santiagoko.deabruak@gmail.com helbidean



- **"IRUN HIRIA" XXIV. ARGAZKI LEHIAKETA**
Antolatzailea: Irungo Argazki Elkarte (I.A.E.)
Modalitatea: Argazkiak argazki-paperean, zuri-beltzean edo koloretan, eta edozein teknika erabiliz onartuko dira.
Gaiak: Librea eta Irun
Epea: Urriak 21



- **BELDUR BARIK LEHIAKETA.** Bidali indarkeria sexistaren aurkako zure bideoak.
Epea: Azaroak 15.
Kategoriak: 12-17 urtekoak eta 18-26 urtekoak.
Proposamenak helbide honetara bidali behar dira: jarrera@beldurbarik.org

- **IRUNGO BIDEO GAZTEAREN XVII. LEHIAKETA**
Noiz: Azaroaren 14tik 16ra.
Kategoriak:
 1. saila: bideoan egindako film laburrak.
 2. "Labur Gehiago" saila: 13 eta 17 urte bitartekoek beren ikuspegi sortzailea adieraz dezakete interesatzen zaien edozein gairi buruz.

3. "Bidasoako Eskualdea" sailean, eskualdeko errealtzaitzaileen lan nabariak hautatzen dira.
Sariak:
 - "Film laburra": 1.500 euro.
 - "Labur Gehiago": film laburrak sortzeko materiala, 400 €ko balioa duena.
 - "Bidasoako Eskualdea": 200 € eta Espainiako 50 jaialdietan izen-emateko aukera. Saria PROMOFESTek ematen du eta 270 eurotan baloratuta dago.

Lanak aurkeztea eta izen-ematea:
 Urriaren 4ra arte egin ahal izango dira.
 On line bidaliko dira, Click for Festivals plataformaren bidez:
www.clickforfestivals.com



Ikastaroak

Txirrinduaz ibiltzeko aholkuak

Zikloturismoa osasuntsua da, ez du kutsatzen eta ez du zaratarik sortzen. Leku berriak ezagutzen dituzun bitartean paisaiaz gozatzeko aukera ematen dizu. Zikloturismoa turismoa egiteko modu merkeagoa da, eta zeuk jartzen duzu erritmoa. Bizikletaz gozatu eta errepidean seguru ibiltzeko, honako aholkuak interesgarri izan daitezke zuretzat.

www.gazteukera.euskadi.net
 Ingurumena eta Garapen Iraunkorra atala.



- **AISIALDIKO BEGIRALE IZAN NAHI DUZU?** Ikasturte berriarekin batera martxan dira aisialdi eskoletan ikastaroak egiteko matrikulazioak. Kontsulta itzazu gazteukera.euskadi.net atariko Aisialdirako Heziketa atalean.



Gazte-Txartela

- **ATZERRIRA BIDAIA-TZEKO ASMOA DUZU?** Gazte-txartelaren titularra bazara bidaia-asegurua doan izango duzu mundu osoan zehar, ohiko etxebizitzatik 30 kilometrotik aurrera hasita.

Gainera, kirol-abentura packak, sarrerak, bidaiak, opariak... aurkituko dituzu lehiaketak eta zozketak atalean. gazteukera.euskadi.net

Orain honako zozketa honetan parte har dezakezu:
 - Multiabentura packak lau lagunentzat: Urriaren 25-26an (urriaren 20ra arte) eta azaroaren 1-2an (urriaren 27ra arte).



Gazte Informazio Bulegoko ordutegi berria

NEGUKO ORDUTEGIA
GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN: URRIAREN 1ETIK
AURRERA

Astelehenetik ostegunera, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30era. Ostiraletan, 11:00etatik 13:30etara Gogoan har ezazu gure ateak egunero 24 orduz irekita dituzula Interneten!



Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Irunero non eskura dezaket?

San Juan
 Gaztelumendi
 Manolo
 Sargia
 Udal Liburutegia
 Gazte Informazio Bulegoa
 Arano
 Corner
 Fotokop
Nafarroa hiribidea
 Erka material elektrikoa
 Kutxa
 Ogi Berri
 Hawaii
 Erauskin
Santiago
 Aguirre
 Txingudiko Zerbitzuak

Toma Pan y Moja
 Haizea
 Swing
Urdanibia plaza
 Migel
 Ospitale zaharra
 Euskaltegia
 Euskadiko Kutxa
 Eskina
 Lasa harategia
Dunboa/Palmera - Montero/Arbes
 Osasun Zentroa
 Tahona
 Zura
 Anetxe
 La Agricola
 Amalen paper-denda
 Biribil
Behobia/Azken

Portu
 Azken Portu
 kiroldegia
 Ogi Berri
 Hawaii
 Hizkuntza Eskola
 Eguneke zentroa
 Kuttuna
 haurtzaindegia
Kolon ibilbidea eta inguruak
 Cadillon Hertz Klinika
 Brasil gozotegia
 Ogi Berri (Kolon)
 Ciaboga
 BBVA
 Kutxa
 Anbulatorioa
 Artaleku kiroldegia
 Virginia kafetegia
 Eburne kafetegia

Erauskin (Luis Mariano)
 Sirimiri
 Turismo Bulegoa
 SAC-HAZ
 Real Union taberna
 Gaudí
 Mendibil ardotea
 Merkairun
 Naroa kafetegia
 Jaiberri
 Luis Mariano pentsiodunen etxea
 Hawaii
 Ketan
 Santander bankua
 Solbes
 Oskarbi
 Kutxa
 Euskadiko Kutxa
 Peinart ileapaindegia

Pio XII
 La Tahona
 Ñ kafetegia
 Ogi Berri
 Alvaro paper-denda
 Erauskin
San Migel
 Tabisa
 Caser egoitza
 Jaizibea okindegia
 Senosiain harategia
 Dumboa fruta-denda
 Uranzu azoka
 Gizarte
 Segurantzako Institutua
 LANBIDE
 BBVA
 Santander bankua
 Dani urdaitegia
 Erauskin

Sabadell
 Euskadiko Kutxa
 Kutxa
 Sotero taberna
 Baztan taberna
 Ogi Berri-Ogitxu
 Aguirre
 Adriana Barrios ileapaindegia
Antzaran
 Picking Pack
 Rosi kioskoa
 Amantegui Hertz Klinika
Anaka
 El Espazio
 Kutxa
 Mariño
 Ogi Berri
 Anaka okindegia
 Washington taberna

Jaizkibel
 janari-denda
 Pablo harategia
 Anaka Berri erretegia
 Covirán Anaka
Puiana
 Tahona
 Puiana taberna
 Ospitalea
 Endanea
Larreandi
 Larrarte harategia
 Toma Pan y Moja
 Pedro arraindegia
Elizatxo
 Martindozenea gaztelekua
Ikasturtean zehar, Irungo ikastetxe guztietan

Urriaren 5ean

Mendi-zeharkaldia

Irungo Mendizaleek antolatuta, Burgoseko Obarenes mendietara (Orbañanos - Flor tontorra - Humion tontorra - Frias) txangoa.

irungomendizaleak.com

Urriaren 27ra arte

Diasso Museoa

Erakusketa



Inbasio Napoleonikoak 1808-1813. Erakusketa Irunen, Bergaran eta Tolosan aurkeztuko da, frantziarren aurka probintzian izandako guda-zelaiaren herrietan, alegia.

Irailaren 20tik urriaren 13ra

Amaia KZn

Erakusketa

Adour Bidasoa Margo Lehiaketan parte hartu duten lanen hautaketa bat ikusgai. Sari banaketa, urriaren 6an.

Urriaren 6an

Kontzertua

Amaia KZn



20:00etan, kontzertua *Viva Verdi*, Luis Mariano Lirika Elkarteak antolatuta.

Sopranoa: Miren Urbieta

Sarrerak salgai: kutxanet-en, Irungo Turismo Bulegoan eta



ikuskitunaren egunean, leihatillean. Bazkideak, 12 €, bazkide ez direnak, 16.

Urriaren 6an

Hegaztien eguna

Plaiiaundin



Egun guztian zehar, Plaiiaundiko Parke Ekologikoan, hainbat ekintza, Hegaztien Nazioarteko Eguna dela eta.

Urriaren 11tik 13ra

Stock Market

Ficoban

Produktu eskaintza zabala prezio merketan: oinetakoak, osagarriak, etxerako gaiak, kirola, informatika, optika eta abar.



Urritik abendura

Arkeologia ikastaroa

Oiasso Erromatar Museoa, Aulas Kutxarekin batera, Arkeologia eta Arte ikastaroa antolatu du Irunen.

Adin guztietako interesdunei

zuzendua. Urritik abendura, asteartero, 18:00etatik 19:00etara.

Informazioa: 943 63 93 53 actividades.oiasso@irun.org



Urriaren 1etik 13ra

Erakusketa

Laboral Kutxan

Xabier Arribasen akademiako ikasleen lanak ikusgai.

Urriaren 4an

Kontzertua

Amaia KZn

19:30ean, Irungo Kontserbatorioko eta BINNINGEN-BOTTMINGEN MUSIKSCHULE-eko orkestren kontzertua. Sarrera: doan.

Urriaren 5ean

Bakearen Eguna

Zabaltza plazan

17:00etatik 20:00etara, Bakearen Nazioarteko Eguna ospatuko da.

Urriaren 5ean

Liburu aurkezpena

Amaia KZn

17:30ean, Amaia KZko hitzaldi aretoan, Jose Carlos Bermejo irundarraren "Mis relatos a cada momento" liburuaren aurkezpena.

Urriaren 5ean eta 6an

Mendi txangoa

Erlaitz Mendi Elkarteak antolatuta, txangoa Reinosara eta Sajako Parke Naturalera.

Informazioa:

Peña kalea z/g. - Astearte eta ostegunetan 19:30-21:00.

-Tel: 943 635 838

-Irusta Kirolak, Aduana, 3.

Tel: 943 611 739

www.erlaitz.com

Urriaren 6an

Abesbatzen Eguna

San Juan plazan



11:30ean hasiko den ekitaldian honako abesbatza hauek izango dira partaide: Albada, Ametsa, Atzokoak, Larreaundi, Nabartenea eta Nayade. Halaber Meakako Adixkideek dantza egingo dute. Fernando Etxepare Diaz omenduko da ekitaldian.

Urriaren 4tik 18ra

Erakusketa

Irun Facktoryn

"Ilustratuak", izeneko erakusketa kolektiboan artista hauek beren lanak erakutsiko dituzte: Jana Lottenburger, Inwoko, Sara Morante, Alberto Martin Curto eta Unai Zoco.

Helbidea: J. A. Loidi, 8.

Urriaren 10ean

Antzerkia

Amaia KZn

20:00etan, Oroimenak antzezle zaletu taldeak *F. R. Una mujer en la sombra* izeneko lana antzeztuko du.

Pilarik eta kablerik gabeko asteburua



Noiz: Urriaren 5ean (larunbata) arra-tsaldean eta 6an (igandea) goizean.

Non: Jose Antonio Loidi plazaren eta Ricardo Alberdi kalearen artean (Palmera-Montero).

Antolatzailea: Santiagoko Deabruak.

BAKAILAOA DASTA EZAZU



KONTZERTUA



"Viva Verdi"



SOPRANOA: MIREN URBIETA
TENORRA: GONZALO TERÁN
BARITONOA: AXIER SÁNCHEZ
PIANOA: OIER ETXABURU

URRIAK 6
ORDUA 20:00
AMAIA K.Z. IRUN

Sarrerak -
Bazkideak 12 €
Ez bazkideak 16 €
Gazteak (30 urterarte) 5 €

SARRERA SALMENTA
Kolon ibilbideko Turismo Bulegoan



CAJEROS SERVIKUTXA

944 00 12 00
www.kutxa.net

INTERNET

www.lirica-luismariano.org
www.irun.org

PATROCINADORES - BABESLEAK



EL DIARIO VASCO



ORGANIZA: ASOCIACION LIRICA LUIS MARIANO IRUN Tlf: 943 612 073 • e.mail: luismarianoirun@liricalm.org • www.lirica-luismariano.org